

EKB

Euskal Kulturaren Batzarrea

EKB «Euskal Kulturaren Batzarrea» irakurtzen da. Joan den martxoaren 28an egin zuen bere batzarre nazionala Donostian. Horren goiburua, «Ahaleginak bilduz, etorkizuna lantzen». Euskalgintzan eta euskal kulturgintzan diharduen sektore guztietako 150 bat lagunek hartu zuen parte egun osoko ihardunaldi betean; horietako asko beraiek partaide diren edo lan egiten duten talde, elkarte edo erakundeen ordezkari ziren.

Zer da EKB?

Orain dela 9 urte pasatxo sortu zen EKB. Bere aurkezpenean aitortzen zuenez, bere azken helburua zen: «Euskal herriaren hizkuntza nazionalaren defentsa eta berreskurapen osoa: personala, hizkuntzazkoa, kulturazkoa eta nazionala». Horri begira, berriz, honako hau zuen bere urreko helburua: Euskalgintzan eta euskal kulturgintzan diharduten talde, elkarte eta erakunde herritarren, sektore ezberdintakoen, *koordinazioa* lortzea.

Koordinazioa izan da, hain zuzen ere, EKBren hitz eta grina nagusia. Horretara bideratu izan du bere estrategia.

Zergatik koordinazioa? Euskararen berreskurapen - eta normalkuntz- plangintza errazionalak horixe eskatzen dutelako; izan ere, barruti eta sail bakoitzean egiten diren ahalegin handiek beren emankortasun osoa izango badute, plangintza orokorraren barruan sartu behar dute; ezaguna da ikastolen lan bikainak bere eraginaren parte handia galdu egiten duela, geletatik irteten diren neska-mutikoek inguru sozial, kultural eta profesional euskaldunik aurkitzen ez dutelako.

Zertarako koordinazioa? Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorrari begira eta horren dinamikan mugimendu herritarra guztiz funtsezkoa eta benetan protagonista izanik, horixe helburuetan, estragian eta ekintzetan bateratzeko antolamendu-modua da EKBren koordinazioa. Bateragune zabala lortuz bakarrik uste dugu izango dela indartsua eta benetan eraginkorra «euskararen eta euskal kulturaren mugimendua» inguratzen eta gainean ezartzen zaizkion edonolako indar - sarritan etsai- galanten aurrean.

Euskararen eta euskal kulturaren defentsarako, eraginerako eta sustapenerako mugimendu herritar zabalak bere organizazio-forma ugariak bilatu izan ditu, beti ere indarrak bateratzeko: «Euskaltzaileen» elkarteak, herri bakoitzekoak (Arrasatekoa, Santutxoko, etab.) edo zabalagoak, Euskal Herri osokoak ere bai (EHE); sail bakoitzean dihardutenen taldeak, koordinakundeak, elkarteak, erakundeak eta enpresa kultural eta editorialak (Euskal Ikasleen elkarteak, Ikastolako Irakasleen Elkarte, Itzultzaileen Elkarte, AEK, Euskal Kazetarien Elkarte, Bertsolarien Elkarte, Euskal Idazleen Elkarte, Ikastolak, Labayru, Argia, Jakin, UZEI, Elhuyar, Kili-kili, eta beste mila ekimen eta obra). Guztiek dute zio eta azkenburuko helburu bateratua: Euskararen berreskurapena eta normalkuntza eta euskal kulturaren sustapena.

EKBk ez zuen guzti horiekin lehiaketan sartu nahi izan; eta hasieratik utzi zuen argi ez zuela erakunde edo elkarte bat gehiago izateko asmorik. Euskararen eta euskal kulturaren

munduko barruti, sail eta maila ezberdinetako elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa bultzatu eta eratu nahi izan du EKBk bederatzi urte hauetan.

Horretantxe saiatu da EKB bederatzi urteotan, lorpen on batzuekin, baina hasierako eta orain oraingo helburuetara inola ere iritsi gabe. Sektore kultural guztietako eta hainbat herritako talde eta elkarte ugari EKBren barruan edo inguruan antolaturik daude, eta benetan saiatu dira elkarrekin euskararen normalkuntzaren proiektua eta estrategia lantzen.

Hainbat ekintzatan eta harremanetan ere gauzatu izan da bateragune hori: euskararen aldeko eta erasoen aurkako kanpaina orokorrak (prentsa bidezkoak, manifestaldiak, kaleko kanpainak, etab.); gogora dezakegu bereziki *Bateginik*, EKBk eta Ikastolen Konfederakundeak antolatuta), euskalgintzako sektore jakinetako kanpaina espezifikoak (eskolako matrikulazioenak, alfabetatzearenak, Egunkari eta komunikabideenak, etab.); talde eta elkarte ezberdinen arteko mintegiak (Euskalduntze-alfabetatzekoak, herrietako elkarteen artekoak, etab.); zenbait kongresuren antolaketa; beste Herrietako jende eta elkarateekiko harremanak.

Koordinazio eta bateragune sektorearteko hori eratzeko, bestalde, hainbat zerbitzu antolatu ditu EKB: 1. *Informazio zerbitzua*, euskarari eta euskal kulturari buruzko «Prentsa eta dokumentazio-buletina»-ren bidez; 2. *Formazio-zerbitzua*, BAT soziolinguistikako aldizkariaren eta bestelako publikazioen bidez; 3. *Zerbitzu juridikoa*, euskararen alorrerako aholkularitza bereziaren bidez; 4. *Harreman-zerbitzua*, bereziki Europako Herri eta Hizkuntza gutxituetako elkarte eta erakundeekin harremanak lotzeko («Euskararen nazioarteko informazio-buletina» argitaratzen du besteren artean).

Zerbitzu espezifiko horietarako arduradunak ezezik, bestelako lan-batzordeen bidez funtzionatzen du EKBk. Guzti horien koordinazioa eta eguneroko gidaritza, berriz, Idazkaritza teknikoak darama; une honetan hiru lagunez osotua dago hori.

Funtzionamendu asanblearioa da funtsean EKBrena, horrelako Koordinakunde irekiak eskatzen duenez. Bertan organizaturik dauden talde, elkarte eta erakundeetako partaideek osotzen dute Nazio-Batzordea. Honen eta Idazkaritza teknikoaren artean, berriz, Batzorde Iraunkorra dago, sektore eta lurralde ezberdinetako lagunek osotua.

EKBk beste buletintxo bat ere argitaratzen du *EKBerriak* izeneko, barnebuletina baino areago, euskararen aldeko mugimendu sozialaren dinamikaren berri emateko tresna dena.

Euskal munduaren momentua eta EKBren Batzarre Nazionala

EKBren Batzarre Nazionala, barne-organotzat baino areago kanpo-organotzat har daiteke, edo, hobeto esanda, luzapen-organotzat. EKBn iraunkorki eta organikoki koordinatuta daudenentzako bakarrik ez da izaten, euskalgintzan eta euskal kulturgintzan diharduten guztiei eta gizarte osoari irekia baizik.

Beste bi Batzarre Nazional egin ditu, lau urtez behin, EKBk: aurrena, 1984ean Eibar-en: bertan Euskararen berreskurapen osorako plagintza orokorrerako oinarriak aztertu ziren, sailez sail; horren fruitua izan zen gero argitaratu zuen JAKIN aldizkariaren zenbaki monografikoa (34.a), «Euskararen plangintzarako oinarriak» izenpean. Bigarrena 1988an Donostian eta Iruñean: EKBren beraren hizkuntza «politika» gelditu zen markaturik bertan landuriko dokumentuan.

Hirugarrena izan da aurtengoa. Hiru helburu izan zituen azken Batzarreak: a) Euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren gaurko momentua denon artean irakurri eta interpretatu, horren inguruan elkarrizketa eta eztabaida eginez; b) Aurrera begira ihardunbiderako oinarriak ipini eta ildo nagusiak markatu, indar guztien koordinazioa zabalduz; c) EKBren beraren lekua eta eginkizuna aztertu, aurrera begirako koordinazioari begira eta euskalgintza eta euskal kulturgintzako indarrek urratu behar dugun bidean.

Dokumentu trinkoa eztabaidatu eta onartu zuen Batzarreak. Azken hamabost urteotan euskararen berreskurapenerako egindako urratsak balioztatzearekin batera, alor horretan egindako okerrak kritikatzan dira bertan; euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren une honetako egoeraren eta dinamikaren lerro nagusiak aztertzen dira; eta etorkizunari begira, alorrean dihardutenen jokabiderako lerroak markatzen dira eta ihardunbiderako lehentasunak seinatzen.

Aurrera begira bost ideia edo nabarmendu zituzten, besteren artean, partaideek: 1. Hizkuntz alorraren autonomia, Euskal Herriko politikaren orokorraren barruan, eta beraz, alor horretan diharduten talde, elkarte eta erakundeen autonomia; 2. Euskaldunon «komunitatea» trinkotu eta sendotu beharra, autoafirmazio linguistiko eta kulturalaren gain, horrela bakarrik gauzatu ahal izango delako, besteren artean, euskalgintzan eta euskal kulturgintzan diharduten indarrak bateratzea; 3. Datozen urteotarako, deklarazio ozenen eta printzipiozko aldarrikapen handien fasea gaindituz, eta errebindikazioak alde batera utzi gabe, indar guztien jokabide eta lan bateratuaren bidetik estrategia zehatzagoa eta bide konkretuagoa markatu beharra; 4. Euskal Herri osoari begira eta sektore herritar ezberdinen arteko koordinazio bizia eta praktikoa eratu beharra; 5. Azken urteotan koordinaziorako aurkituriko zailtasunak ikusirik, eta azken aldian sorturiko elkarte berriak eta sentsibiltate ezberdinak kontutan harturik, EKBren helburuak birformulatu eta horren eraketa egokitu beharra, etorkizuneko apostuei eta erantzukizunei aurre egin ahal izateko.

Aurreko hilabeteetako gogoeta eta eztabaidaren fruitua izan zen Batzarrea: topaketa zabalaren eta bateragune irekiaren ihardunaldi trinkoa. Hala ere, gehiago eman zezakeen, atzera begirako azterketa kritikoa eta gaurko egoeraren diagnosis egiteko agertu ziren argitasunaren eta batasunaren pareko zorrotasuna, kemena eta irekitasuna agertu izan balira, aurrera begirako helburuak eta estrategia markatzeko ere. Hauxe erakutsi

zuen, Batzarreak, zeguruenik hutsune baina aldi berean apostu gisa: datozen urteoi begira ahalegin sendoa egin beharra daukatela euskalgintzako indar herritarrek helburuak zehazteko eta sakontzeko eta estrategia baterakoia markatu eta irekitzeko; horien gain eraiki ahal izango dute beren arteko konfidantza handiagoa eta lankidetzaz zabalerako koordinazio biziagoa. Dena dela, bateragune bat besterik ez zen izan Batzarrea; hango elkarrizketa-eztabaidak eta bertan azterturiko dokumentuak aurrerako bide irekiaren norabidea seinatzen dute.

EKB Euskararen oraingo bidegurutzan

Euskara bidegurutze historikoan dagoen unean egin duela uste dut EKBk bere III. Batzarrea.

Zalantzarik gabe azken urteotan egindako aurrerako urratsak aitortu eta balioztatu behar dira; eta horrelaxe egin du Batzarreak berak bere dokumentuan; hala ere, okerrak, alde ezberdinetakoak, ezkutatu gabe, eta sarritan elementu kritikoak zorrozki eta gordinki nabarmenduz.

Esperantza eta ilusio ugari ere galdu da azken urteotan; eta nekea ere gehiegi zabaldu da euskalgintzako munduan, bertako zailtasunean, borroken eta ezinen artean. Funtsean geure «euskaldunon»- arteko tirabirak, ulertezintasunak eta borrokkak nolana ere koordinaziorik ezak- ekarri du egoera hori.

Baina, bestalde, aurrerabidea abiatu orduko, agertu dira eraso ausarta, zabal eta eutsiak, zenbait sektore sozial eta politikoren aldetik. Esan beharra dago argi eta garbi: Euskararen etsaiak harrotu eta puztu egin dira; euskararen alde lorturiko oinarri legal eta instituzional apurtxoak ere zalantzan jarri eta atzera bota nahian.

Baina eskandalorik handiena ez da hori; agian uste izateko zen horrelako erreakzioak etorri behar zuela. Larriena zera izango litzateke: Euskararen alde eta euskalgintzan gabiltzanok -euskaldunok- ez izatea gauza eraso horiei erantzun tinkoa eta

indartsua emateko: dagokien erantzun, legala, instituzionala eta soziala. Instituzionala lotsagarria izan dela uste dut, hain makala eta defentsiboa izan bait da; eta gainera maila legalean beren fruitu batzuk lortuak dituzte erasotzaileek, hartutako neurrietan atzera eraginez.

Erantzun soziala ere ez da, beharko lukeen tamainakoa izan oraindik. Eszeptizismoaren zuloan sarturik eta bidegalduta gabiltzala dirudi batzutan. Forma ezberdin asko har ditzake erantzun sozialak; baina funtsezkoena eta eraginkorrena zera litzatekeela uste dut: Euskaldunon komunitatea trinkotzea eta geure arteko bateragunea indartzea eta zabaltzea. Geure euskalduntasunaren berrespenean suspertu ahal izango dugu, euskararen berreskurapen osorako konfiantza berria. Konfiantza eta itxaropena suspertzea da, hain zuzen, lehen urratsa, euskararen aldeko mugimendu soziala indarberritzeko.

Horretarako azken urteotan egindako okerrak zuzendu behar dira. Euskararen arazoak eta euskalgintzak beren autonomia eta dinamika sozial eta politiko bereziak behar dituzte gure gizartean, politika orokorraren gailentasunetik ihes eginez, horren zurrunbiloan gal ez daitezen. Horrela bakarrik bideratu ahal izango da euskararen inguruan eta alorrean euskaldunon eta herritarron batasuna, edo gutxienik dinamika baterakoa, euskararen berreskurapen osoari begira.

Horren gain markatu ahal izango dira koordenatu egokiak euskararen aldeko dinamika berria, zabala eta irekia, eratzeko. Hiru puntutara ekarriko nituzke datozen urteotarako euskalgintzako estrategiaren ardatzak, EKBren 3. Batzarre Nazionalari atxekiz:

1. Euskaldunon konpaktazio sendoa, euskararen inguruan bilduz eta euskara erdigunetzat hartuz, geure afirmazio komunitarioa egiteaz gain, euskararen berreskurapen-dinamika osorako eta zabalkunderako oinarri eta erreferentzi puntu bihurtzeko. Bide honetatik azken urteotan egindako urratsak

txalagarriak dira, eta areagotzekoak: Herrietako elkarteak, udal euskaldunak, etab.

2. Euskaigintzan eta euskal kulturgintzan sektore ezberdinetan dihardutenen arteko koordinazio zabala, denon ahaleginak eta indarrak bateratzeko; euskararen berreskurapenaren prozesuan sektore bakoitzeko aurrerapenek fruitu erdirik ez bait dute emango -eta sarritan antzuak gerta daitezke-, bestelako sektoretan ere benetan aurrepenak ematen ez badira, eta denak koordinaturik ez badoaz.

3. Alor honetan bereziki lanean diharduten indar eta erakunde sozialen eta herritarren eta erakunde publikoen arteko harremanen «artikulazio» egokia, alde batekoen eta bestekoekoen eginkizuna aitortuz eta erantzukizuna eskatuaz, euskararen normalkuntzaren plangintza orokorra eta programa konkretuak egiteari eta aplikatzeari begira, ezinbestekoak direlako bi alderdien arteko elkarriketa eta elkarlana.

Paulo Agirrebaltzategi